



SARA BERASATEGUI FUERTES, Tolosako udal idazkaria.

NEUK ZIURTATUA:

Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita seiko apirilaren hogeita hamarrean, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

7. HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETARI BURUZKO IRIZPENARI.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2026ko apirilaren 22ko irizpena.

IKUSIRIK

LEHENA.- Diruzaintza azpisaileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“**LEHENA.-** 2025eko urriaren 25ean, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren ordenantzaren aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailean 5eko 11/1989 zenbakidun Foru Araua erabilita aipatutako ordenantza aldatzeko proposamena jaso dela:

Lehena.- Gaur egun, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren ordenantza fiskalaren ordenantza fiskalak hainbat hobari aurreikusten ditu. Horien artean:

“10. Artikulua.

1.- Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzen badira, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik ondorengo hobariak aplikatuko dira:

...

c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatuko Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, %95eko hobaria izango dute.



...

3. Sustatzaile pribatuek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, %50eko hoberia izango dute.”

Proposamena honela geratzea izango litzateke:

“10. Artikulua.

1.- Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzen badira, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik ondorengo hobariak aplikatuko dira:

...

c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako babes publikoko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai babes sozialeko etxebizitzetarako bai etxebizitza tasatuetarako direnak, % 95eko hoberia izango dute.

...

3. Sustatzaile pribatuek sustatutako babes publikoko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai babes sozialeko etxebizitzetarako bai etxebizitza tasatuetarako direnak, % 50eko hoberia izango dute.”

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Beraz, udal-teknikari honek honako hau **PROPOSATZEN DU**:

LEHENEA.- Eraikuntza, Instalazio eta obren gaineko Zergaren ordenantza fiskalaren 10.1. c) eta 10.3 artikulua aldatzea. Honela geratuko dira:

“10. Artikulua.

1.- Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzen badira, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik ondorengo hobariak aplikatuko dira:



...

c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako babes publikoko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai babes sozialeko etxebizitzetarako bai etxebizitza tasatuetarako direnak, % 95eko hobaria izango dute.

...

3. Sustatzaile pribatuek sustatutako babes publikoko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai babes sozialeko etxebizitzetarako bai etxebizitza tasatuetarako direnak, % 50eko hobaria izango dute.”

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.”

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2026ko apirilaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Miren Yosune Sanz Vidal, Cristina Pelaez Errazquin, Ander Figuerido Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Eraikuntza, Instalazio eta obren gaineko Zergaren ordenantza fiskalaren 10.1. c) eta 10.3 artikulua aldatzea. Honela geratuko dira:

“10. Artikulua.

1.- Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzen badira, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik ondorengo hobariak aplikatuko dira:

...

c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako babes publikoko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai babes sozialeko etxebizitzetarako bai etxebizitza tasatuetarako direnak, % 95eko hobaria izango dute.

...

3. Sustatzaile pribatuek sustatutako babes publikoko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai babes sozialeko etxebizitzetarako bai etxebizitza tasatuetarako direnak, % 50eko hobaria izango dute.”

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onspena eman dio Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari buruzko irizpenari.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntza Lan Esparruko zinegotzi delegatuaren onspenarekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan.

O.e.
**ANTOLAKUNTZA LAN ESPARRUKO
ZINEGOTZI DELEGATUA**

**UDAL IDAZKARIA
SARA BERASATEGUI FUERTES**



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026IPLE0004-7- ICIO ordenantza fiskalaren aldk ziurt/7- ICIO ordenantza fiskalaren aldk z